


Euskal AEko BPGd-ak % 2,2ko urte arteko hazkundera izan du 2019ko bigarren hiruhilekoan

Urte arteko datuei dagokienez, enplegua % 1,7 hazi da, eta jarduerako arlo guztietan

Euskal AEko BPGd-ak, 2019ko bigarren hiruhilekoan, % 2,2ko hazkundera izan du, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, aldakuntza % 0,6koa izan dela kalkulatu da. Bi hazkunde-tasa horiek aurreko hiruhilekorako kalkulaturakoen berdinak dira.

2019ko bigarren hiruhileko hazkunde-tasek aurreko uztailaren 30eko Kontuen Aurrerapenean kalkulaturako bilakaera berresten badute ere, BPGd-aren urte arteko tasa hamarreko bat murrizten da.



Eskaintzaren ikuspegitik, 2019ko bigarren hiruhilekoko BPGd-aren urte arteko hazkundera jarduera-sektore guztietan —lehen sektorean izan ezik— izandako bilakaera positiboaren ondorio da. Bertan, Zerbitzuen sektorea eta Eraikuntzaren sektorea nabarmendu behar dira. Industriak, hirugarren hiruhilekoz jarraian, hazkunde txikiagoak erregistratu ditu.

Lehen sektoreak bilakaera negatiboa erregistratu du. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, % 0,1 murriztu da balio erantsia. Hala ere, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, bilakaera positiboa da, hiruhileko arteko % 2,5eko hazkundera eman baita.

Bigarren hiruhileko honetan, **Industriaren** sektoreak % 0,8ko urte arteko hazkunde-tasa izan du; aurreko bi hiruhilekoetan hautemandako tasak baino pixka bat handiagoa, baina azken bost urteetan kalkulaturako bilakaeraren azpitik. Hiruhilekoen datuak kontuan hartuz, hazkunde horrek % 0,6ko tasa suposatzen du. Manufaktura-industriaren bilakaera industria osoa baino hamarren bat azpitik kokatzen da, bai urte arteko datuei zein hiruhileko arteko datuei dagokienez.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak.
Euskal AE. %

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	10,1	7,9	8,1	4,8	15,9	4,6	-0,1
INDUSTRIA ETA ENERGIA	2,5	2,5	3,5	2,5	0,3	0,6	0,8
Manufaktura-industria	2,5	2,8	3,8	2,9	0,5	0,6	0,7
ERAIKUNTZA	1,6	4,1	3,7	5,4	6,2	4,8	2,9
ZERBITZUAK	2,9	2,7	2,6	2,5	2,7	2,6	2,6
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,1	4,0	4,1	3,9	3,6	2,8	2,5
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	2,2	2,1	1,9	2,0	2,1	2,1	2,3
Gainerako zerbitzuak	2,6	2,2	2,0	2,0	2,4	2,7	2,9
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	2,8	2,8	3,0	2,7	2,4	2,2	2,2
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	2,3	4,9	5,8	5,1	3,8	2,2	1,9
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	2,8	3,0	3,2	3,0	2,6	2,2	2,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Eraikuntzaren sektoreak aurreko hiruhilekoetan baino dinamismo txikiagoa erakusten badu ere, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, % 2,9 hazi da. Hiruhileko arteko hazkundea % 0,2koa dela kalkulatu da.

Zerbitzuen sektorea etengabe hazi da jarduerako hiru azpisektoreetan. Oro har, 2018ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, % 2,6 hazi da eta, 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,5.

Merkataritza, ostalaritza eta garraio adarrak erakutsi du dinamismo txikiena, hiruhileko honetan izan duen hazkundea aurreko hiruhilekotan izandakoa baino pixka bat txikiagoa delako. Urte arteko datuak hartuz, adar hau % 2,5 hazi da eta, hiruhileko arteko datuak hartuz, % 0,5. Aitzitik, **Gainerako zerbitzuak** deituriko adarrak —besteak beste, jarduera profesionalak, finantza-jarduerak eta aseguruak hartzen ditu bere baitan— azken aldietan ikusitako bilakaera hobetu du, gero eta urte arteko tasa handiagoekin. Urte arteko hazkundea % 2,9an kalkulatu da. Horrek, 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuz, % 0,6ko aldaketa dakar. Azkenik, Administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak adarrak, aurreko aldietan erregistraturako hazkunde-profil bera mantentzen du, urte arteko % 2,3ko hazkundearekin eta hiruhileko arteko % 0,6ko hazkundearekin.

BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2018			2019	
	II	III	IV	I	II
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, ARRANTZA	7,3	-3,6	6,6	-5,0	2,5
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,4	0,0	-0,9	1,1	0,6
Manufaktura-industria	0,3	0,0	-1,0	1,3	0,5
ERAIKUNTZA	2,0	1,5	1,5	-0,2	0,2
ZERBITZUAK	0,5	0,6	0,8	0,7	0,5
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	0,8	0,9	0,7	0,4	0,5
Herri-administrazioa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerb.	0,4	0,4	0,7	0,5	0,6
Gainerako zerbitzuak	0,3	0,6	0,8	0,9	0,6
BALIO ERANTSI GORDINA oinarritzko prezioetan	0,6	0,5	0,4	0,7	0,6
PRODUKTUEN GAIKOKO ZERGA GARBIAK	1,4	0,9	-0,4	0,2	1,2
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,7	0,5	0,4	0,6	0,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginek zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Sektoreko agregatuaren jokabideak **Balio Erantsiaren** bilakaera positiboa ekarri du; aurreko urteko hiruhileko berean baino % 2,2 altuagoa eta urteko lehen hiruhilekorako kalkulaturakoa baino % 0,6 handiagoa.

Eskaeraren ikuspegitik, hiruhileko honetan azpimarratu behar da, urte arteko datuei dagokienez, kanpo-sektoreak BPGd-aren hazkundera izandako ekarpen positiboa. Hori gertatzen da, Barne Eskaeraren urte arteko hazkundera (% 2,0) BPGd-aren urte arteko hazkundera (% 2,2) baino txikiagoa delako, neurri handi batean Kapital Eraketa Gordinak indarra galdu duelako. Esportazioek eta inportazioek jokabide positiboa izan duten arren, esportazioak inportazioak baino gehiago hazi dira (% 2,8 eta % 2,6, hurrenez hurren).

Familia-etxeen azken kontsumoko gastuak (kontsumo pribatuak) bere urte arteko hazkundera profila pixka bat moteldu du, % 1,9ko aldakuntza-tasa emanez (2019ko lehen hiruhilekoan ikusitako % 2,2rekin alderatuta). Hiruhileko arteko datuak % 0,3 hazi dira, aurreko hiruhilekoan hazi zena baino hamarren bat azpitik.

Kontsumo publikoak (administrazio publikoen azken kontsumoko gastua) profil dinamikoagoa jarraitzen du, bigarren urtez jarraian % 2,0ko hazkunde-tasa erakutsiz, 2018an zehar hautemandako balioen gainetik. Hiruhileko arteko datuei dagokienez, aldakuntza-tasa % 0,3koa dela kalkulatu da.

Administrazio publikoen azken kontsumoko gastuaren eta familia-etxeen azken kontsumoko gastuaren bilakaera bateratuaren emaitzak **azken kontsumoko gastuaren** % 1,9ko hazkundera ekarri du. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, hazkundera % 0,3koa izan da.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2017	2018	2018			2019	
			II	III	IV	I	II
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	2,9	2,5	2,6	2,4	2,2	2,1	1,9
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	3,1	2,7	2,8	2,6	2,5	2,2	1,9
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	2,1	1,6	1,6	1,7	1,3	2,0	2,0
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	3,1	4,7	4,9	4,8	4,6	4,0	2,5
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	3,5	3,7	4,9	3,4	2,3	3,3	2,2
Gainerako kapital-eraketa gordina	2,9	5,2	4,9	5,6	6,0	4,4	2,6
BARNE-ESKARIA	2,9	3,0	3,1	3,0	2,8	2,6	2,0
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	4,8	3,0	3,0	2,1	0,7	-1,4	2,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	5,0	3,0	2,8	2,2	1,1	-0,8	2,6
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	2,8	3,0	3,2	3,0	2,6	2,2	2,2

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

2019ko bigarren hiruhilekoan, **Kapital-eraketa gordinak (inbertsioak)** dezelerazio bat izan du, % 2,5eko urte arteko hazkunde-tasa erakutsiz, aurreko hiruhilekotan hautemandakoak baino txikiagoa. Urteko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,3 egin du atzera. Jokabide hori Ekipo Ondasunetan eta gainerako Kapital-eraketa gordinetan (eraikuntzaren sektorearen bilakaerarekin lotuagoa) gertatu da. Ekipo Ondasunen inbertsioa, urte artean, % 2,2 hazi da (aurreko hiruhilekoan % 3,3 hazi zen) eta beste inbertsioak % 2,6 (2019ko lehen hiruhilekoan kalkulaturako % 4,4rekin alderatuta). Urte arteko hazkunde txikiago horiek hiruhileko arteko % 0,4ko eta % 0,2ko atzerapenak, hurrenez hurren, eragin dituzte.

BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Hiruhileko arteko aldakuntza-tasak. Euskal AE. %

	2018			2019	
	II	III	IV	I	II
GASTUA AZKEN KONTSUMOAN	0,6	0,4	0,6	0,6	0,3
Familien eta EZMADE-en azken kontsumo gastua	0,6	0,5	0,6	0,4	0,3
Herri-administrazioen azken kontsumo gastua	0,3	-0,1	0,4	1,3	0,3
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	1,2	0,9	1,3	0,5	-0,3
Kapital finkoaren eraketa gordina ekipo-ondasunetan	0,6	-0,2	0,7	2,1	-0,4
Gainerako kapital-eraketa gordina	1,5	1,5	1,7	-0,4	-0,2
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESORTAZIOAK	-1,4	0,5	0,2	-0,7	2,8
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	-1,3	0,5	0,8	-0,7	2,0
BARNE PRODUKTU GORDINA merkatu-preziotan	0,7	0,5	0,4	0,6	0,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak

Iturria: Eustat. Hiruhileroko kontuak

Enplegu-mailei dagokionez (**lanaldi osoaren baliokide diren lanpostutan** neurtuta), enpleguak, oro har, % 1,7 egin du gora urte arteko tasan (lehen hiruhilekoan baino hamarren bat gutxiago) eta % 0,5 hiruhileko artekoetan (lehen hiruhilekoan hazi zena baino bi hamarren gehiago).

Enplegu-mailak bilakaera positiboa izan du, bai urte artekoetan bai hiruhileko artekoetan, jarduera-adar guztietan. Urte arteko datuei dagokienez, Lehen sektorean % 1,1eko hazkundera gertatu da

(aurreko hiruhilekoan emandako % 1,5 baino pixka bat gutxiago), Industrian % 0,9 (aurreko hiruhilekoaren berdina), Eraikuntzaren sektorean % 3,3 (urteko lehen hiruhilekoan baino 6 hamarren gutxiago), eta Zerbitzuen sektorean, oro har, % 1,8 (aurreko hiruhilekoan % 2,0 izan zen). Urteko lehen hiruhileko datuekin alderatuta, sektore guztietan lanpostuak sortu dira; Lehen sektorean % 0,5eko hiruhileko arteko tasa positiboak eman dira, Industrian % 0,4koak, Eraikuntzan % 1,1ekoak eta Zerbitzuen sektorean % 0,5ekoak.

Lurralde Historikoetako BPGd-aren bilakaerari dagokionez, urte arteko hazkunderik handiena Gipuzkoan izan da (% 2,5eko tasa); ondoren, Bizkaian (% 2,1). Araban izan da hazkunde txikiena. 2019ko bigarren hiruhilekoan BPGd 2018ko bigarren hiruhilekoan baino % 1,8 handiagoa izan da. 2019ko lehen hiruhilekoari dagokionez, Gipuzkoa % 0,7 hazi da, Bizkaia % 0,6 eta Araba % 0,5.

Metodologiari buruzko oharra: Eustatek Hiruhileko Kontuetara ekarri ditu Euskal AEko Kontu Ekonomikoetako 2017ko behin betiko datuak eta 2018ko aurrerapen-datuak. Hortaz, hiruhilekoetako serieak berriz zenbatetsi behar izan dira.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1 - 01010 VITORIA-GASTEIZ

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tf: 945 01 75 62